



FORU AGINDUA

Mendi Zerbitzua
Esp. zk.: 2020/188

Foru Agindua, Arabako Lurralde Historikoan ehiza jardueraren araudi espezifikoaren ezartzen duena 2020-2021 denboraldirako

Arabako Lurralde Historikoak badu ahalmena, erkidego osoko erakundeek arautu ez dituzten arlo guztietan, ehiza jarduerari buruzko arauak garatzeko, baldin eta erakunde horiek eman dituzten arauetara moldatzen bada. Ahalmen hori erabiliz, Arabako Lurralde Historikoko Ehizari buruzko ekainaren 14ko 8/2004 Foru Araua onetsi zen. Foru arau horren 32. artikulua ezartzen du Ehiza Lurralde Kontseiluari entzun ondoren Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak onetsiko duela Arabako Lurralde Historikoan ehizan jarduteko xedapenak arautuko dituen urteko foru agindua, non honakoak zehaztuko baitira gutxienez: ehizaren eta merkaturatzearen aldetik interesa duten espezieak; araudiak; leku desberdinetan espezie desberdinen ehizarako aplikagarri diren aldiak, baimendutako egunak eta orduak, ehizan egiteko modalitateak eta harrapaketak adierazita.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Ehizari buruzko martxoaren 17ko 2/2011 Legeak 31. artikuluan zehazten du zein diren foru aldundiek urtero eman behar dituzten debekualdi aginduetan gutxienez jaso behar diren edukiak.

Kontuan hartu dira ehizaren araupetzean eragiten duten eta honako hauetatik eratorritzen diren alderdiak: estatuko araudia —Ehizari buruzko 1/1970 Legearen Erregelamendua; eta, Ondare Naturalaren eta Biodibertsitatearen 42/2007 Legea —, Europako Batasuneko 2009/147/EE eta 92/43/EEE zuzentarauak, eta Bernako 1979ko Hitzarmena.

Kontuan hartuta ehiza faunaren egungo egoera eta nekazaritzan eragiten diren kalteak, eragindako trafikoko istripu ugariak arriskuan jartzen duten bide segurtasuna, eta pertsonentzako eta abeltzaintzako espezieentzat dauden osasun arriskuak, uste da interes publikoko nahikoa arrazoi daudela ehiza jarduera behar bezala sustatu eta arautzeko.

Foru agindu hau izapidetzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak aurreikusitako araupetze onaren printzipioei jarraitu zaie, zeinak maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskineko 3. artikuluan jasota baitaude. Foru dekretu horrek hauexek onesten ditu: izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura, araupetze eta genero eraginaren txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikarako jarraibideak. Horiek horrela, aurrekarietan nahikoa justifikatu da Araban ehizaren araudi berri baten beharra; gainera, proportziozko araugintza ekintza da, zeren eta lortu nahi den helburua lortzeko (hau da, 2020-2021 denboraldian Arabako Lurralde Historikoan ehizaren araudi espezifikoaren arautzea) ezinbesteko gutxienez mugatzen baita.



Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordea entzunda, haren irizpena neure eginda, eta halaber 2020ko otsailaren 20an bildutako Lurraldeko Ehiza Kontseiluari kontsulta eginda,

Aginduzko txostenak aztertuta, Nekazaritza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 14/2016 Foru Dekretuak ematen dizkidan eskumenen indarrez, eta Arabako Foru Aldundiko sailak 2019-2023 legegintzaldirako finkatzen dituen diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bederatzigarren xedapena aplikatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Arabako Lurralde Historikoan 2020-2021 denboraldirako ehizan aritzea arautzen duen araudia, I eranskinean jasotako artikuluen arabera.

Azken xedapena. Foru Agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean

Vitoria-Gasteiz

Eduardo Aguinaco López de Suso
Nekazaritza Saileko foru diputatua
Diputado Foral de Agricultura

María Asunción Quintana Uriarte
Nekazaritza zuzendaria
Directora de Agricultura

I. ERANSKINA

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN 2020-2021 DENBORALDIRAKO EHIZA ARAUTZEN DUTEN BALDINTZA ZEHATZAK EZARTZEN DITUEN ARAUDIA

1. artikulua.- Ehizarako lursailak. Baimendutako egunak eta ordutegiak.

1.1 Arabako Lurralde Historikoan aprobetxamendu komuneko ehizarako lurretan debekua dago. Espeziearen egoera berezia dela eta, debekatutako lurretan basurdea bakarkako jautsian ehizatzea baimendu ahal izango da.

1.2 Arabako Lurralde Historikoko ehiza barrutietan ehizan aritzeko baimendutako egunak honako hauek izango dira: aldi baimenduaren ostegun, larunbat, igande eta jaiegunak. Hala ere, oro har ehiza barruti bakoitzeko baldintza tekniko-zinegetikoen agiriak eta ehizako jarraipen planek, bai eta ehiza aprobetxamenduko berariazko beste arau batzuek ere, jasotzen dutena aintzat hartu beharko da.



Espezie jakin batzuei dagokienez, ehiza barruti bakoitzerako onartutako ehizako jarraipen planetan zehazten diren egunak hartuko dira kontuan.

1.3 Oro har, 08:30etik 17:30era egin ahal izango da ehiza, salbu eta debeku erdiko aldia, ehiza larrian, uso migratzaileak eta birigarroak tiro postu finkoetatik ehizatzen eta berariazko baimenetan; haien ordutegia kasu bakoitzean aplikatzekoak diren baldintza espezifikoetan zehazten da.

1.4 Foru agindu honetan aipatzen denean eguzki irteera eta eguzki sarrera edo egunsentia eta iluntzea, erreferentzia bezala hartzen da Institutu Geografiko Nazionalak Arabako lurralderako argitaratutako egunsenti eta iluntze almanaka ofiziala (<http://astronomía.ign.es/hora-salidas-y-puestas-de-sol>).

2. artikulua.- Debeku erdiko aldia.

2.1 Egun baimenduak: ostegun, larunbat, igande eta jaiegunetan ehizatu ahal izango da, elkarren segidako 12 ehiza egunetan, 2020ko abuztuaren 15etik irailaren 30era bitartean, biak barne. Ehiza barrutiek debeku erdiko aldia zein egunetan hasiko den erabaki ahal izango dute.

2.2 Ordutegia: ehizarako ordutegia egunsentitik iluntzera arte izango da.

2.3 Tiro postuak eta txabolak erabiltzeko eta uso migratzaileak eta birigarroak ehizatze ordutegia izango da baimendutako aldia argi hastetik iluntzea baino ordu erdi lehenagora arte, Arabako Errioxako tiro postu finkoetan izan ezik, horietan argi hastetik iluntzera arte izango baita.

2.4 Ehizatu daitezkeen espezieak. Hauek dira debeku erdiko aldia ehizatu daitezkeen espezieak: galeper arrunta (*Coturnix coturnix*), untxia (*Oryctolagus cuniculus*), belabeltza (*Corvus corone*), haitz usoa (*Columba livia*), pagausoa (*Columba palumbus*), txoloma (*Columba oenas*), mika (*Pica pica*) eta azeria (*Vulpes vulpes*).

3. artikulua.- Ehiza xehea.

3.1 Baimendutako aldia: oro har, 2020ko urriaren 12tik 2021eko urtarrilaren 31ra, biak barne.

3.2. Ehiza xeheko espezie hauek baimendutako aldi hauetan ehizatu ahalko dira:

- Erbia (*Lepus sp.*) eta eper gorria (*Alectoris rufa*): 2020ko azaroaren 1etik 2021eko urtarrilaren 6ra, egun biak barne.

- Uso migratzaileak eta birigarroak behar bezala baimendutako uso postuetatik: debeku erdiko aldirako eta ehiza xeherako baimendutako egunez gain, 2020ko urriaren 4tik abenduaren 6ra, biak barne, egun baliodunen mugarik gabe.

- Arabako Errioxako barrutietan behar bezala baimendutako birigarrotarako tiro postuetan, 2020ko azaro eta abenduko egun guztietan eta 2021eko urtarrilaren 31ra arte ehizatu ahal izango da.



3.2 Ordutegia: tiro postuak eta txabolak erabiltzeko eta uso migratzaileak eta birigarroak ehizatzeako ordutegia izango da baimendutako aldi argi hastetik iluntzea baino ordu erdi lehenagora arte, Arabako Errioxako tiro postu finkoetan izan ezik, horietan argi hastetik iluntzera arte izango baita.

3.3 Ehizatu daitezkeen espezieak. Honako hauek dira ehiza xeheko espezieak:

Ugaztunak: untxia (*Oryctolagus cuniculus*), erbia (*Lepus sp*) eta azeria (*Vulpes vulpes*).

Hegazti sedentarioak: eper gorria (*Alectoris rufa*), faisia (*Phasianus colchicus*), arabazozo pikarta (*Sturnus vulgaris*), mika (*Pica pica*), belabeltza (*Corvus corone*) eta haitz usoa (*Columba livia*).

Hegazti migratzaileak: Pagausoa (*Columba palumbus*), txoloma (*Columba oenas*), birigarro txikia (*Turdus iliacus*), garraztarroa (*Turdus viscivorus*), birigarro arrunta (*Turdus philomelus*), durdula (*Turdus pilaris*), galeper arrunta (*Coturnix coturnix*), oilagorra (*Scolopax rusticola*), eta istingor arrunta (*Gallinago gallinago*).

Uretako hegaztiak: basahatea (*Anas platyrhynchos*), ahate txistularia (*Anas penelope*), Ipar ahatea (*Anas strepera*), ahate buztanluzea (*Anas acuta*), antzara hankagorritza (*Anser anser*), udako zertzeta (*Anas querquedula*), zertzeta arrunta (*Anas crecca*), ahate mokozabala (*Anas clypeata*), kopetazuri arrunta (*Fulica atra*), eta murgilari mottoduna (*Aythya fuligula*).

Aldi baterako debekatuta geratzen dira usapal europarra, istingor txikia, murgilari arrunta eta hegabera.

3.4 Kupoak. Ondoren adierazten diren gehieneko harrapaketa kupoak ezartzen dira espezie hauetarako:

Eper gorria: hiru ale pertsona eta egun bakoitzeko

Oilagorra: hiru ale pertsona eta egun bakoitzeko

Galeperra: 15 ale pertsona eta egun bakoitzeko

Erbia: ale bat pertsona eta egun bakoitzeko.

4. artikulua.- Ehiza larria:

4.1 Kupoak. Ehiza espezieen harrapaketa kupoak Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak zehaztutakoak izango dira.

4.2. Espezie eta ehiza aldi balioudun hauek ezartzen dira.

Basurdea (*Sus scrofa*): 2020ko irailaren 5etik 2021eko otsailaren 28ra arte, biak barne. 2020ko irailaren 5etik urriaren 12ra arte eta otsailean zehar, uxaldian bakarrik ehizatu ahal izango da basurdea.

Oreina (*Cervus elaphus*), 2020ko urriaren 12tik 2021eko otsailaren 28ra.



Orkatza (*Capreolus capreolus*), 2020-2021 denboraldirako, hauek izango dira baimendutako aldiak:

- a.- Arren udaberriko zelataldiak: apirila, maiatza eta ekaina.
- b.- Ar eta emeen udazkeneko zelataldiak: 2020ko urria.
- c.- Arren udako zelataldiak: 2020ko iraila.
- d.- Emeen neguko zelataldiak: 2021eko urtarrila eta otsaila.
- d.- Ar eta emeen udazkeneko uxaldiak: 2020ko urria.
- f.- Emeen neguko uxaldiak: 2021eko urtarrila eta otsaila.

4.3 Baimendutako egunak eta ordutegiak

- a) Uxaldian ehizatzeke baimendutako egunak ostegunak, larunbatak, igandeak eta jaiegunak izango dira, 08:30etik 16:30era.
- b) Orkatza zelatan ehizatzeke baimendutako egunak asteko egun guztiak izango dira, egunsentitik iluntzera, ehiza aprobeixamendurako planean besterik xedatu ezean. Parke naturalen barruan dauden ehiza lurretan, egunsentitik 11:00etara eta 18:00etatik iluntzera izango da, udaberriko zelataldietan; eta egunsentitik 11:00etara eta 17:00etatik iluntzera, udazkeneko eta neguko zelataldietan.
- c) Oreina zelatan eta itxaronez edo zain egonez ehizatzeke egun baimenduak izango dira espeziea ehizatzeke baimendutako aldiko ostiral, larunbat, igande eta jaiegunak, egunsentitik iluntzera. Parke naturalen barruan dauden ehiza lurretan, ordutegia izango da egunsentitik 11:00ak arte eta 17:00etatik iluntzera arte.

5. artikulua- Debekuak.

5.1 Ehizari buruzko martxoaren 17ko 2/2011 Legeak 31. artikuluan xedatutakoan oinarrituz foru agindu honetan ezarritako debeku guztiak haren 56.50 artikuluan tipifikaturik egongo dira. Gainerakoei, lege horren 57.18 artikulua ez-betetzea iritziko zaie.

5.2 Uxaldian ehizatzeke debekaturik dago ondoko arraza hauetako txakurrak erabiltzea: pit bull terrierra, staffordshire bull terrierra, american staffordshire terrierra, rottweilerra, dogo argentinarra, fila brasildarra, tosa inua, akita inua, harrapari mallorcarra, dogo alemaniarra, bull terrierra, bullmastiffa, artzakur napoliarra, dogo tibetarra, airedale terrierra, bordeleko dogoa, cane korsikarra, beauceko artzain-txakurra, dobermana, artzain-txakur alemaniarra, piriniotako artzakurra, artzakur espainiarra, harrapari kanariarra, kaukasoko artzain-txakurra. Halaber, debekatuta daude arraza horien gurutzatzeak, salbu eta artzakurren eta ehiza-tzakurren arteko gurutzatzea.

5.3. Hiru txakur baino gehiagorekin ehizatzea eskopetako, bakarkako ehiza xehean.

5.4. Balak erabiliz eta balak edukiz ehizatzea, ehiza xehean, eta perdigoiki kartutxoekin ehiza larrian, basurdeen bakarkako ehiza barne, perdigoiztat hartzen dira 4,5 milimetroko diametroa edo txikiagoa duten jaurtigaiak. Edukitzeko debekua ez da aplikatuko uxaldiaz bestelako modalitateetan ehiza larria eta ehiza xehea aldi berean egin daitezkeen garaian.



6. artikulua.- Prebentzio eta kontrol neurriak, nekazaritzan, abeltzaintzan, mendietan eta basa faunan egindako kalteengatik.

Ehizari buruzko martxoaren 17ko 2/2011 Legeak 34.4 b eta 34.5 artikuluetan eta Arabako Lurralde Historikoan ehiza espezieak kontrolatzeko aparteko neurriak arautzen dituen apirilaren 7ko 134/2017 Foru Aginduak, edo hura ordeztzen duenak, xedatutakoa aplikatuz, lurzoruren batean ehiza espezieek egindako kalteak agertzen badira, haiek kontrolatzeko prozedura eta baliabide egokienak baimendu ahal izango dira, eta ohiko ehiza metodoen ordeztu neurri alternatiboak eta prebentziozkoak bultzatuko dira bereziki.

7. artikulua.- Unean uneko neurriak.

Espezieen iraupenerako batere onuragarriak ez diren gertaera klimatikoak, biologikoak edo bestelakoak direla-eta Arabako edo eskualde bateko ehiza aberastasunak kalterik izan badezake, haiei aurre hartzearen, urgentzia horretarako oztopo ez bada, eta Ehiza Lurralde Kontseiluari entzun ondoren, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak ehiza espezie horietako batzuk edo horiek guztiak harrapatzeko aldi baimenduak aldatzeko ahalmena hartu ahal izango du beretzat. Erabaki hori komunikabide nagusietan argitaratuko da eta, ondoren, ALHAOn foru arau bidez eta ahal bezain azkar.

8. artikulua.- Ehiza hondakinak.

2/2011 Legearen 56.48 artikulua aplikatuz eta gizakien kontsumorako ez diren animalia azpiproduktuak kontrolatzeko arauak eta animalien osasunerako arauak garatzen dituen otsailaren 2ko 50/2018 Errege Dekretua kontuan hartuta, ehiza larrian debekatuta dago ehiza larriko uxaldietan sortutako ehiza hondakinak bertan behera uztea.

9. artikulua.- Merkaturatzea.

Irailaren 15eko 1118/1989 Errege Dekretuak xedatzen duenez, basahatea, oreina, galeper arrunta, untxia, orkatza, faisia, basurdea, erbia, pagausoa, txoloma, eper gorria eta azeria dira Araban merkaturatu daitezkeen ehiza espezie bakarrak.

10. artikulua.- Ehiza faunaren babes orokorra.

Oro har, ehiza barruti batean aldi berean saltoan harrapatzen jardun dezake, gehienez ere, pertsona batek 100 hektareako.

11. artikulua.- Baimendutako baliabideak.

Ehiza espezieak harrapatzeko baimendutako baliabide bakarrak hauek dira: erriflea, eskopeta, arku eta behar bezala baimendutako ehiza hegaztiak eta hudoak. Baita ere, ehiza larriko ehizakiak errematatzeko bakarrik, arma zuriak ere erabil daitezke.